

Zentzunagan ez dugu samiña besterik.
Izadiak bere muiñak dakuskigu utsik:
ezer ezetik ez dugu egundo zorionik,
ez bai dugu arkitzen mingarri eztanik.

OTSALAR

KANTARI

Bidez nijoa	gure abenda
kantari,	mintzoari,
gogoa dala	ene ametsok
ameslari.	igorri...,
Erriz-erri,	arbasoen
mendiz-mendi,	euskerari;
Euskalerritik	batzuetan
gaindi;	alai,
maitatuz ene	eta, urrengokoan
aberri,	itunki.
euskotarrena dan	Maitasunezko
tegi,	opari,
gogoz mindurik	dalako euskoen
eztiki	oiñarri.
biurtzeraiño	Bidez nijoa
olerkari.	kantari,
Biotzez-biotz	gogoa dala
kuttunki,	ameslari.

OTSALAR